

laister berri



001

ADINEKOEN ECUMA

002

ICARTZAKO BEKA

003

UDAL EUSKALTECIA

004

LUDOTEKAK

005

GAZTEGUMEAK

006

URBIETAKO ARTE
PLASTIKOETAKO
ZENTRUA

007

ICARTZAKO KOFRADIA

010

EKINTZAK

laister berri

ADINEKO PERTSONEN EGUNA



Irailak 15, larunbata: Jokuak Erretiratuen etxean

11:30ean: Toka eta Igel-jokoak

15:30ean: Karta-jokoak: musean, tutean, punttuan eta seikotan. Txapelketarako izen-ematea Erretiratuen etxean irailaren 13 eta 14an 16:30etik 18:30era.

Irailak 16, igandea

12:00etan: Meza, Loinazko San Martin Parroki Elizan.

13:30ean: Gure adinekoei eskainitako Omenaldi-bazkaria Antzizar Kiroldegian.

Oharra: Joan nahi duten pertsonak ondorengoa egin behar dute:

-Izena eman irailak 12ra arte, 3 euro ordainduz, Beasaingo udaleko harrera bulegoan 8:00etatik 13:00etara eta NA aurkeztuz.

-Beasainen bizi diren 65 urtez goitiko pertsonak eta beren ezkontideak eman dezakete izena.

Bazkalondoan: Alkatejaunaren agurra, omenaldia eta ohorezko aurrekua Aurtzaka dantza-taldeak eskainita. Festa bukatzeko dantzaldia Arrasto taldearekin.

laister berri

Diseinua:

AH Diseño

Maketazioa:

AH Diseño

Erredakzioa:

AH Diseño

Publizitatea:

AH Diseño

Imprimaketa:

Gráficas

San Martín C.B.

Lege Gordailua:

SS-654/96

Erredakzioa

helbidea:

Martina

Maiz 3/2.

bulegoa

T 943 882 257

F 943 027 639

E ah@clickah.com

Beasaingo Kultura
Batzordeak
aldizkari honen
6.500 ale banatzen
ditu hilabetero
Beasaingo
postontzietan.

Eragilea:

kultura saila



Beasaingo udala

laister berri

IGARTZA BEKA



Irailaren 7an, arratsaldeko 7:30ean, Beasaingo Igartza Jauregian, Igartza beken sari emateak egingo dira. Aste batetik, X. Igartza literatura sorkuntzako (aurtengo edizioko) bekaren irabazlea nor den jakinaraziko da eta garaikuma eta beka-sariaren erdia (3.000€) emango zaizkio. Pertsona horrek urtebete izango du idazlana idazteko.

Bestetik, IX. Igartza literatura-sorkuntzako (iazo edizioko) bekaren irabazleari (Jon Martin Etxebarria) beka sariaren bigarren erdia (3.000€) emango zaio bere lana bukatu eta entregatuko duelako.

Beasaingo Udalak, CAF enpresak eta ELKAR argitaletxeak sortu eta antolatzen dute Igartza beka 35 urte baino gutxiago izan eta 2 liburu baino gehiago argitaratu ez dituzten idazle gazteentzat.

Aurtengo X. edizio honen deialdia otsailean egin zen eta ekainaren 30era bitartean 13 proiektu aurkeztu ziren; aurtengoan Euskal Herriko 4 lurraldetako (Lapuri, Nafarroa, Bizkaia eta Gipuzkoa) idazle gazteek hartu dute parte Igartza sarian.

laister berri

UDAL EUSKALTEGIA



UDAL
EUSKALTEGIA

**Egizu euskaraz!
Nahi baduzu...
egingo duzu**

**¡Comunicate en euskera!
Si quieres...
puedes**

Matrikularen epea:
Irailaren 3tik aurrera
hilabete osoan.

Bulego ordutegia:
Goizez: 09:00-13:00
Arratsaldez: 15:00-19:00

**BEASAINGO UDAL
EUSKALTEGIA**
T: 943 028100
E: zuzendaritza@beasain.net

Beasaingo Udal Euskaltegiak 20 urte daramatza Beasain euskalduntzen. Irailaren 3tik aurrera eta hilabete osoan irekirik izango da matrikula epea goiz eta arratsaldeko ordutegian. 2007-2008 ikasturterako euskaltegiak eskaintza zabala aurkeztzen digu: euskalduntzeko eta alfabetatzeko ohiko ikastaroez gain, etorkinentzako, merkatarientzako eta gurasoentzako ikastaro bereziak izango bait dira. Gainera, ikasleen jarraipen hobea egiteko eta denborari etekin hobea ateratzeko tutorearen laguntza ere eskainiko du.

2007-2008ko euskara ikastaroak:
Euskalduntzeko maila guztiak, EGA eta alfabetatzea tutorearekin.
Asteaz 4, 6 eta 10 orduko ikastaroak.
Etorkinentzako ikastaroak: 60 ordu.
Merkatarientzako ikastaroak.
Autoikaskuntza sistema tutorearekin.
Mintzalaguna.
Aterketen prestaketa: (EGA, Osakidetza, Hezkuntzako eta Administrazioako perfilak, HABEko maila aterketak).

26 urte euskara irakasten. 43 zentru.

Aretxabaleta | Arrasate | Aspetia | Beasain | Bergara | Deba | Eibar | Elgoibar | Errenteria | Eskoriatza | Hernani | Hondarribia | Irun | Lasarte-Oria | Legazpi | Mutriku | Pasaia | Tolosa | Uretxu-Zumarraga | Zarautz

laister berri

LUDOTEKAK



BERRITSU ETA TXELOTXE LUDOTEKAK
Matrikularen epea: Irailaren 10etik 21era.
Ordutegia: 15:30etik 17:00era
T.: 943 886 546 / E.: puxtarri-aisialdi@hotmail.com

LUDOTEKA

Jolasak badu garrantzia, Jolasaren alderdi ludikoaz gain, alde hezitzailea, integratzailea eta soziala ere aintzat hartu behar baitira.

Haur eta gaztetxoek denbora libre, gaur egun, kirolerako eta formazio akademikoa osatzeko aprobetxatzen den denbora antolatua eta egituratua bihurtu zaigu. Haurren denbora libre inoiz baino okupatuago eta lotuago dago, "ekintzen preso" dago denbora libre. Honek, neurri batean behintzat, ahuldu egiten ditu aisialki dauzkan giza dimentsiorik berezkoenak, hots, gozamena eta subjektibitatearen adierazpen libre.

Gozamena eta pertsonaren garapen libre modu esplizituan uztartzen dituen aisialki eskaintzen dute Udalak eta Puxtarri Aisialdi Taldeak Berritsu eta Txelotxe ludoteketan.

Matrikula zabalik egongo da irailaren 10etik aurrera.

laister berri

GAZTEGUNEA

GAZTEGUNEA

Irailaren 15etik aurrera zabalik.

Ordutegia: larunbatetan eta igandeetan 16:30etik 20:30era.

GAZTEGUNEA

Gazteen aisialdiak, harreman sozialak ditu ardatz nagusi, eta lagun taldeekin batera, baditu oinarriko beste hiru osagai hauek: elkarteak, erakundeen egitarauak eta proiektuak, teknologia berriak eta komunitate birtual berritzaile daitezkeen Internet.

Hala ere, osagai horiek landu eta garatzeko gune egokiak eta programak behar dira.

Beasainek duela bi urtetik hona gazteen aisia beharrak aseko dituen gunea eskaintzen du Urbieta etxean, eta ikasturte berria hastera doan honetan Gaztegunak berriro ere ateak zabalduko ditu.

Asiaz gozatzeko gunea izateaz gain, gazteen kezkak, iradokizunak eta proiektuak bildu eta bideratzeko gune bilakatu da.

laister berri

URBIETA ARTE PLASTIKOETAKO ZENTROA

Urbietako Arte Plastikoen Zentroak 2007-2008 ikasturterako tailerrak aurkeztzen dizkigu matrikula epearen hasierarekin batera. Balleta, antzerkia, marrazketa eta pintura; eta zeramika eta esmaltaketa ikastaroak izango ditugu aurtengo ikasturteko aukerak.

Izena eman edo informazio gehiago nahi izanez gero Udaleko Kultura sailera gerturatu zaitezke 09:00etatik 13:00etara bitarteko ordutegian.

BALLETA - Hasiera: Urriak 1.


ANTZERKIA - Hasiera: Urriak 2.

MARRAZKETA ETA PINTURA - Hasiera: Urriak 1. Azaroak 5 (berriak)

ZERAMIKA ETA ESMALTAKETA - Hasiera: Urriak 2.

GAZTEENTZAKO ZERAMIKA TAILERRA - Hasiera: Urriak

Kultura Saila - Loinazko San Martin Plaza z/g - 20200 Beasain
T: 943 02 80 65 - F: 943 02 80 67 - E: kultura@beasain.net



pintura / eskultura / antzerkia / balleta / pintura / eskultura / antzerkia / balleta /

laister berri

IGARTZAKO DANTZARIEN KOFRADIA

IRAILAK 9, IGARTZAKO DANTZARIEN EGUNA LEHENDABIZIKOZ

Dantza atsegin-iturri dutelako. Dantzari izateaz harro daudelako. Ohiturak eta tradizioa bizirik dauden zerbait direla pentsatzen dutelako. Bizirik egoteko, elikatu eta aberastu behar direlako. Harria herririk gabe ezer ez delako. Herrikideei kultur ekarpen berri bat egin nahi dietelako. Poza adierazteko modu bat dutelako. Asko direlako. Beti izan direlako. Izaten jarraitu nahi dutelako. Eta dantzatuz gozatu nahi dutelako.

Igartzako Dantzarien Kofradia osatuko dute irailaren 9an, eta beraiei amazoiz guztiak erakutsiko dizkiete Beasaingo herriari eta inguratzen den edonori. Herriko plazatik Igartzara, Igartzako ingurumarian, zubia eta jauregia, errota nola burdinola, ermita zein Dolarea, denak lotuko dituzte espata-dantzen sokarekin, eta bilduko dituzte txistu, danbor eta musikatan, apaindura berria jantziko diote, eta bizi berria hartuko dute aspaldiko harriek, bideskek, zuraje eta egiturek.

fotoetxe

